

Semealabak

Getxoko Gurasoen Eskolako aldizkaria • Urria 2002 • 3 Zk

Nire diarioa Asteazkena, Irailaren 25

Gaur saskibaloï taldeko neska guztiak elkartu gara. Gutaz inor ez denez arduratuko, badirudi aurten ezingo dugula jokatu.

Orain artean, sekula ez gara konturatu egin ahal izan dugun guztia gurasoei esker izan dela. IGE-ko gurasoei esker, hain zuzen ere. Eurek ematen dute gure izena ligan, eurek jantziak erosi, partiduak eta bidaiak antolatu eta gu entrenatu ere egiten dute.

Ez dakit zehatz-mehatz zer gertatu zen iaiz, ikasturtea bukatzean. Badirudi urte askotan jardun duen guraso talde batek laguntza eskatu ziela beste guraso batzuei IGE-n egin behar duen guztia egiteko. Eta inor ez zuen bere burua eskaini.

Hortaz, alde egin dute eta dena utzi dute bertan behera, jarduera asko egiteari utzi behar zaio. Eta guk ezin dugu urte oso bat galdu.

Nire etxean aipatu dut eta begitarte bitxiagz begiratu didate. Denborarik ez daukatela, ez duela ezertarako balio... Azaltzen ahalegindu naiz, baina ezertxo ere ez dut lortu. Ez dago zer eginik!!!

Egoïsta hutsak dira denak. IGE-aren kuota ordainduta nahikoa dela uste dute. Beste batzuek egingo dutela lana.

Laguntza eskatu diogu zuzendariari. Hori gurasoen arazo bat dela esan digu, ez dela ikastetxearen arazoa. Argi dago!!! Akademikoa denaz besterik ez dira arduratzen, notak, azterketak eta eskolak. Beste guztiaz, ordea, ezertxo ere ez.

Gauza bitxia izan da eskolaz kanpoko jarduerak Eskola Konstseiluaren eskuduntza direla esan digutenean. Baina, beste ikastetxeen antzera, IGE-aren kontuak direla ematen du.

Beste ikastetxe bateko Saskibaloï taldean izena ematea besterik ez dugu. Baina penagarria da. Urteak daramatzagu elkarrekin, talde bat osatu eta elkarrekin jokatzea atsegin dugu.

Eta hori guztia, ikasturte honetan IGE-rik ez dagoelako...





Nolakoa izango litzateke Guraso Elkarterik gabeko eskola?

Urte batzuetatik hona, Eskoletako Gurasoen Elkarteetan parte hartzen duten gurasoen kopurua pixkana beharantz doala ikusten da.

Asko dira urte luzez bakarrik, laguntzarik gabe, eta batzuetan bai irakasleek bai ordezkartzen duten kolektiboak berak kritikatzeari nekatuta dauden pertsonen osatutako gurasoen elkarteak.

Gurasoen elkarteetan dauden pertsonak, askorentzat, denbora libre asko duten, eta karguaz nolabait probetxua ateratzeko duten pertsonak dira. Sarriegi entzuten diren iruzkinak dira eta egia ez izateaz gain, pertsona horientzat iraingarriak dira, beren denbora eskuzabaltasunez ematen baitute guztion seme-alabon onerako. Halako eta bestelako iritzi oker batzuen arrazoiak Gurasoen Elkarteek egiten eta sustatzen dituzten jarduerak oro har ezagutzen ez direla da. Hori, jakina, irakaskuntzaren kalitatearen eta, azken finean, gure seme-alabon kalterako da.

Nortzuk dira, izan ere?

Beren seme-alaben onerako, eskolaren funtzionamenduan interesatuta dauden pertsonen multzoa. Baina, batzuetan dagoen iritzia, aurka, ez beraien seme-alaben onerako soilik, guztion onerako baizik.

Guk beste asti daukate baina, beren kabuz, lehentasunak hautatu eta duten denbora libre orduak lapurtzea erabaki dute, ikastegiaren kalitatea areagotzen eta gure seme-alaben baldintzak hobetzen saiatzeko.

Egiten ditugun gauzak

Bigarren plano batetik eta ikastegian egiten diren beste jarduerak batzuekin nahastuta, gurasoen elkarteak jarduerara pila egiten du, lanean orduak eta orduak emanaz.

Pentsatzen da Gurasoen Elkarteak seme-alaben eskolaz kanpoko jardueretan soilik, eta beste ezer gutxiagotan aritzen dela.

Jarduera horietako asko eta asko desagertuko lirateke, bat batean es-

kola guraso elkarterik gabe geratuko balitza.

Hona hemen jarduera horietako batzuen zerrenda, zuen guraso elkarteetako zenbaitek egindakoetatik ateratakoa. Kontuan izan denak ez direla ikastegi guztietan egiten.

1. la eginkizun nagusia eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea dute: futbitoia, saskibaloia, karatea, ingelesa, marrazkia eta pintura, eta beste asko. Besteak beste:
 - Kanpaldi edo txangoak antolatu eta begirale modura joatea.
 - Ikasturte hasierako liburuen salmenta antolatzea, horrek familientzat dakarren erotasunarekin, ondoriozko merkatuek gain.
 - Beraiek bakarrik zein irakasleekin batera ikasturte amaierako jaia antolatzea, adiskidetasunerako bazkariak.
 - Kirolaren jaia, euskaren eguna edo beste edozein gairen gainekoa.
 - Gurasoentzako zenbait hitzaldi eta ikastaro antolatzea.

- Eskolako txandalak fabrikako prezioan erosi ahal izatea, nahi dutenentzat.
 - Urtean, hiruhilean zein hilean behin aldizkari bat argitaratzea, eskolako jarduerak eta familiak hurbiltzeko, familiek batzuetan eskolan gertatzen denaz ezer gutxi jakiten dute-eta.
 - Errege Magoena eta Olentze-roarena egitea gabonetan edo PINera joatea hurrekin gabonetan.
2. Guraso eskolako ikastaroak antolatzea.
 3. Behar duten familiak jarduera batzuetan finantzatzeko laguntzea.
 4. Dirua jartzea materialak erosten laguntzeko (pianoa, marrazki eta pinturako materiala, bideoak, teletextu, bibliotekarako liburua)
 5. Eskola aseguruaren kudeaketa. Ondoren hainbesteko oihartzun publikoa ez duten arren, guztiontzako oso garrantzitsuak diren beste jarduerak batzuek dauzkagu. Eskolaren kudeaketarekin zerikusia dutenak dira, non gurasoen elkarteak gehienetan sartuta baitaude, batzordeko kide eta Eskola Kontseiluetako kide direlako.
 6. Eskola Kontseiluetan parte hartzea, erabakiak hartzeko eta anormalta-

- sunak kontrolatzeko orduan:
- Urtero liburua alda ez daitezen eta liburuen zerrendak uda baino lehen edukitzeko.
 - Jantokiko arautegia, prezioak...
 - Eskola egutegia.
 - Matrikulazioen kontrola.
 - Memoria, Eskolako Urteko Planak.
 - Eskola inguruko trafikoa antolatzea, eta udaltzainak eskatzea sarrera eta irteerarako.
 - Igerilekuen txandak antolatzea, udalerriko beste eskola batzuekin koordinatuta, eta ikastegiarekin jarduerak horretarako gal dituzkeen orduak koordinatzea.
 - Orduetegiak eta ikasgaiak kontrolatzea.
 - Ikasgela bakoitzeko ikasturte hasierako bilerak prestatzea.
 - Irakasleekin biltzeko denbora gehitzea.
7. Eskola Batzorde desberdinetan parte hartzea:
 - Segurtasuna eta Higienea. Garbitasuna eta segurtasuna aldageletan, elementu zaharkituak eta arriskutsuak aldatzea, kolpeen aurkako zoruak, haurren ihesak saihestea, ebakuazio planak eta suteen simulazioa, pape-


- rontziak, aterpeak, eta abar
 - Iraunkorra.
 - Bizikidetasuna.
 - R.O.F. Barruko Arautegia
 - Ekonomikoa.
 - Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen batzordea.
 - Euskara.
 - Gelako ordezkarien bidez ikasturte bakoitzean jarduerak desberdinetarako eta liburuen erosketarako boluntariorako erabiltzen den dirua kontrolatzea.
8. B.I.G.E. (Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkarte) edo Gurasoen Elkartearen Koordinakundea bezalako erakundeetan parte hartzea eta udalaren galdera sortei erantzutea.

Ikusten duzuen bezala, egiten den jarduerak kopurua oso altua da, eta pertsona askoren partaidetza behar da, eta askotan, Gurasoen Elkartearen Batzordeetan ez da hainbeste jende egoten.

Horregatik, pertsona horiei ulerker eta esker onez begiratu behar diegu, eta ahal dugun heinean, haiei laguntzen ahalegindu.

Orain berriro galdetzen dizuet: Nolakoa litzateke nire eskola guraso elkarterik gabe?

Irakurriz ikastea



Garrantzirik handiena duten gauzetatik urrutuz gaituzten mezuetan blai dagoen gurea bezalako garai batean, informaturik egoteko gogoak eta aldi berean hainbat arazori irtenbidea bilatu behar izateak eragotzi egiten digute harreman batzuetan sakontzea, eta lagunaren, semearen/alabaren, aholku bila dabilen kidearen ahotsak, sarri askotan, azaleko arreta baino ez du aurkituko gure aldetik. Entzun egiten dugu baina ez dugu,

ordea, aditzen eta hortik datoz egoera latzetan murgiltzen gaituzten gaizkiulertuak eta tentsioa. "El arte de escuchar" izenburua duen lan honetan Shafir doktoreak medikuntzaren alorreko bere ezagutzak azaldu ditu, geure barruko bere ezagutzak azaldu ditu, geure barruko ahotsa eta maite ditugun haienak aditzen laguntzeko ariketa batzuk proposaturik, txikitzen aztien ipuinak kontatzen zizkigutenean jartzen genuen ilusio berberarekin ari gaituzten.

Shafir, Rebecca Z.
«El arte de escuchar».
Grijalbo (Llave azul). Madrid, 2000.

Egutegia

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16

Ikastaroen

| | IKASTETXEA | GAIA | HASTEKO EGUNA | ORDUA |
|----------------|-------------------|---|---------------------------|-------|
| urria | Artaza | Nerabezaro | Asteartea , urriak 8a | 19:00 |
| | Geroa | Nerabezaro-aurrea | Asteartea, urriak 9a | 15:00 |
| | Julio Caro Baroja | Pentsatzen ikasten, erabakitzen ikasten | Asteartea, urriak 9a | 19:30 |
| azaroa | Larrañazubi | Heziketa sexuala | Asteazkena, azaroak 13a | 9:00 |
| | Fadura | Pentsatzen ikasten, erabakitzen ikasten | Osteguna, azaroak 14a | 19:00 |
| urtarrila 2003 | Aixerrota | Eskola porrotari aurre egin | Astelehena , azaroak 13a | 19:00 |
| | Romo | Nerabezaro-aurrea | Osteguna, urtarrillak16a | 15:00 |
| | Zubilleta | Nerabezaro-aurrea | Osteguna, urtarrillak16a | 19:15 |
| otsaila 2003 | Europa | Nerabezaro-aurrea | Astelehena , otsailak 17a | 19:00 |
| | Azkorri | Estresari aurre egin (2) | Asteazkena, otsailak 19a | 19:00 |
| | Divina pastora | Estresari aurre egin (2) | Asteazkena, otsailak 19a | 19:00 |

Eskerrik asko Barakaldoko Udaleko "Aita, Ama" aldiakariari.



Eskolako jarduerak gurasoentzat

- Ikastaroek hiru edo bost ekitaldi irauten dute. Adierazitako data lehenengo ekitaldiarena da. Eguna eta ordutegia berdina izango da ikastaroak irauten duen asteetan zehar.
- Aldez aurretik izena ematea ez da beharrezkoa. Nahikoa da adierazitako ikastetxean agertzearekin, lehenengo egunean.
- Edozein arrazoi dela-eta, lehenengo egunean ezin bazarete etorri, hurrengo ekitaldietara etor zaitezke.
- Zure seme-alabak ez badira Eskola Batzordeko kideak eta ez baduzu hori ezagutzen, atezaina

edo IGE-arengana jo, ekitaldiak non egiten diren jakinaraz diezazuten.

- Jarduerak dohainik dira.
- Lehenengo egunean gutxienez pertsona ez badira etortzen, batean saiatuko gara, eta hori pertsonen gutxieneko kopurua bada lortzen, ikastaroa geldiaraziko da, eremuan bertan daukazuen aukerak jakinaraziko zaizkizuen. Garrantzitsua da lehenengo egunean etor zaitezen.

